



GRADUZ ALDATZEKO ESKARIEI BURUZKO ARAUTEGIA, UPV/EHUko ARTE EDERREN FAKULTATEKO

Arautegiaren helburua da irizpideak zehaztea graduz aldatzeko eskariak onartzeko, betiere, kontuan hartuta graduz aldatzeko ezinbestekoa dela UPV/EHUko Arte Ederren Fakultatean ematen diren hiru graduek komunean dituzten nahitaezko 120 kredituak gaindituta izatea. Arau hauek lagungarri izango dira hiru graduen arteko oreka mantentzeko eta hiru titulazioen gestioaren onerako, graduz aldatzeko eskariak masiboak izanez gero, desorekak eragiteko arriskua baitago.

1. Oro har, graduz aldatzeko eskari guztiak onartuko dira, betiere, xede graduak beste horrenbeste ikasle galtzen baditu.
2. Parekotasunik ez badago, gradu bakoitzeko promozio bakoitzean desoreka ezin izango da izan % 5 baino handiagoa. Hau da: gradu bakoitzak hartzen duen eta galtzen duen ikasle kopuruaren arteko aldea ezin izango da izan % 5 baino handiagoa, hartara saihestu egingo baita aldaketen ondorioz talde batzuk masifikatuta egotea. Zenbakitan adierazita:
 - Arteko Gradua: gehienez ere 7 ikasleko aldea egon daiteke gradu honek hartzen eta galtzen duen ikasle kopuruaren artean.
 - Sorkuntza eta Diseinuko Gradua: gehienez ere 5 ikasleko aldea egon daiteke gradu honek hartzen eta galtzen duen ikasle kopuruaren artean.
 - Kultura Ondareen Kontserbazio eta Zaharberritzeari buruzko Gradua: gehienez ere 5 ikasleko aldea egon daiteke gradu honek hartzen eta galtzen duen ikasle kopuruaren artean.
3. Honakoak dira graduz aldatzeko eskariak onartzeko irizpideak:
 - 3.1. Lehentasuna izango dute fakultatean ikasten hasi zirenean orain egin nahi duten graduan sartzeko behar besteko nota zeukaten ikasleek
 - 3.2. Ikasle horien eskariak behin ebatzita, lehenengo eta bigarren mailako batez besteko notaren arabera



ordenatu eta ebatziko dira eskariak.

4. Graduz aldatzeko eskaria onartuz gero, fakultatea eskari egilearekin jarriko da harremanetan zein izapide egin behar duen azaltzeko. Graduz aldatzeko eskaria, administrazioaren ikuspegitik, espedientea lekuz aldatzeko eskariaren parekoa da, eta, beraz, graduz aldatuko diren ikasleen matrikula ezin izango da izan, inolaz ere, lehenengo mailatik aldaketarik egin gabe gradu horretan ari diren ikasleen kaltegarri. Horrela, bada, graduz aldatzen diren ikasleek, hirugarren mailako hautazko irakasgaiak aukeratzean, matrikula egiteko unean plaza hutsak dituzten irakasgaien artean aukeratu beharko dute.

Graduz aldatzeko eskariak egiteko epea ikasturte bakoitzean erabakiko du idazkaritzak.

Arautegi hau Ikastegiko Batzarrak onartu zuen 2015eko uztailaren 2an.